

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Ostia txarreko hard-rockaren loraldi berria



More circus than ever.
Cool Circus.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 46'12".
10 euro.

Arrasatearrak lozorrotik irten eta bigarren lana kaleratu dute, honako hau iraupen luzekoa. Aurretik hamar hatz-beteko biniloa kaleratu zuten eta gerora Ekonen agurreko bira zela-eta, geldirik izan dute proiektua. Orain indarberrituta datoz eta aurreko lanean erakutsi ziguten high-energy eskandinaviarrari lagun berria gehitu diote: Guns N' Roses-en sleazy jarrera erakutsi nahi duten hard-rock kantu itsaskorragoak eta 1970eko hamarkadako dinosauroen

distira eta gitarra landuak. Halakoetan tempoak bestelakoa bada ere, badira punk-rockaren bat-batekotasuna duten piezak ere. Eta, gainera, biniloko kantak gehitu dituzte. Badirudi punka eta hard-rocka batzearen formulak loratze berria duela. Eta, oso egun gutxitan grabatu badute ere, Jean Phocasen eskua eta etxeko lanak eginda eramatea antzematen dira.

www.myspace.com/coolcircus

Yago Goronaeta - Cool Circus

«Musikak frustrazio handiak ematen ditu, baina intentsitate handiz bizitzen dugu»

Rockak eta zirkoak gero eta antzekotasun handiagoa dute? Zertan?

Bai. Euskal Herrian rock talde bat aurrera ateratzea zirkoaren antzekoa da. Berez 1970eko hamarkadan bazirudien musikariak izarrak zirela, baina hastapenetara itzuli gara berriro: herriz herri ibiltzen ziren musikarietara, hain zuzen ere, aurrerantz ihesean. Gu ere horrela gabiltza.

Jean Phocasekin errepikatu duzue. Zer da berarengandik gehien gustatzen zaizuen?

Honako hau ere grabazio frenetiko samarra izan da, lau egunetan guztia egin dugulako. Lehenengo aldiz Elkarrera joaterakoan zalantzak izan genituen, baina oso gustura gelditu ginen eta errepikatu dugu. Phocasek esperientzia handia dauka, asko mimatzen ditu kantak eta, gainera, arriskatu egiten du. Profesionala da eta gainera oso tipo jatorra.

Punk-rocka guztia alboratu gabe, gero eta gehiago lantzen duzue

hard-rocka. Asmo betea zen?

Bai, aurretik pentsatua genuen. Txarrik ahots erregristo asko ditu eta pena ematen zigun berriro punk-rock kantuek egitea; pauso bat harago eman nahi genuen. Hala ere, biak batzea gustatzen zaigu: punk-rockaren bat-batekotasuna eta hard-rockak daukan ukitu bluesero, zikin eta probokatzailea. Bide horretan gabiltza.

Taldekide gehienek urte asko daramazue musika taldeekin gora eta behera. Zer ematen dizue rockak?

Poztasunak ematen ditu, baina baita frustrazioak ere. Lan handia dauka, ez duzu inoiz dirurik ikusten, baina intentsitate handiz bizi duzun zaleztasuna da: kontzertuak ematea, aurreko uneak, ostekoak... oso



bereziak dira. Dagoeneko odolean daramagu eta ez dakigu beste ezer egiten.

Heavytik zatoz eta hainbeste urte metala egiten ibili ostean, eroso zaude hard-rockean?

Oso heavy-thrash zalea izan naiz beti, baina gehiago disfrutatzen dut hard-rockarekin. Metala teknikoagoa da eta hard-rockak *feeling* handiagoa dauka. ■